



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

FILM LABURREN LEHIAKETAREN OINARRIAK **Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 37. Astea** **urriak 30 – azaroak 6 / 2026**

Oinarri hauen arabera xedatzen dira “DONOSTIAKO FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEAREN” 37. ekitaldiari dagozkion film laburren izen-ematea eta parte-hartzea, Nazioarteko, Espainiako eta Animazioko lehiaketei dagokienean.

JAIALDIAN film labur baten izena ematearekin batera –horretarako finkatutako moduetako edozein erabilita–, izen-ematea burutu duen pertsona fisiko zein juridikoak (aurrerantzean, “AURKEZPEN-EGILEA”) espresuki eta argi eta garbi onartzen ditu OINARRI hauek.

Era berean, JAIALDIAN izena ematean, AURKEZPEN-EGILEAK film laburra ustiatzeko eskubideen jabe dela adierazten du, eta eskubide horiek, Jabetza Intelektualaren alorreko indarreko legeriak xedatutakoari jarraiki, JAIALDIAN izena emateko eskumena (I) esleitzen diote, eta (II) hirugarren pertsoneri film laburra erreproduzitu, jendaurrean ezagutarazi, eraldatu, bikoiztu eta/edo azpitulatzeko beharrezkoa den baimena ematen die, bai eta ustiatzeko beste edozein forma erabiltzekoa ere.

Ondorioz, AURKEZPEN-EGILEAK izango du hirugarren pertsonak Jabetza Intelektualaren alorrean aurkez ditzaketen balizko erreklamazioen ardura, eta kontzeptu horiei lotutako erreklamazioak izatekotan, JAIALDIA ez kaltetzeaz arduratuko da.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ONARPENA

Hautaketa batzordeak lehiaketako film laburrak aukeratuko ditu. Aukeraketa horretan parte hartzeko, film laburrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 🕒 2025eko urtarrilaren 1aren ondoren egindakoak izatea.
- 🕒 Gehienez 20 minutu izatea.
- 🕒 Fantasia edo beldurra gai nagusia izatea.

Kategoriak: edonork izena eman dezake Nazioarteko Lehiaketan. Espainian ekoitzia izanez gero, Espainiako Film Labur Onenari Saria ere eskura dezake. Euskadin ekoitzia izanez gero, Euskal Film Labur Onenari EITB Saria ere eskura dezake. Animaziokoa bada, Animazioko Film Labur Onenari Saria ere eskura dezake. Hautaketa batzordeak erabakiko du film laburrek zein kategorian edo kategoriatan parte hartuko duten, eta gerta daiteke kategorია bat baino gehiagotan parte hartzeko hautatzea.

Izena emateko epea **ekainaren 15etik abuztuaren 18ra** bitartean egongo da zabalik.

Izen-ematea bide hau erabilita egin daiteke soilik:

- **Short Film Depot (www.shortfilmdepot.com)**



SARIAK

- 🏆 **Ikusleen Saria Film Labur Onenari (1.000 €)**
Sari hau publikoak bozketa bidez ematen du. Film labur bakoitzaren puntuazioa eskuratzeko, bozketa eman duten ikusleen artean jasotako puntuazio guztien batuketa zatitzen da.
- 🏆 **Nazioarteko Epaimahaiaren Saria Film Labur Onenari (1.000 €)**
Nazioarteko epaimahaia espezializatua eta antolakuntzak lehiaketarako izendatutakoa izango da eta berak erabakiko du Epaimahaiaren Saria Film Labur Onenari.
- 🏆 **Ikusleen Saria Animaziozko Film Labur Onenari (1.000 €)**
Animaziozko film labur hautatuek sari hau eskuratzeko aukera izango dute.
- 🏆 **Ikusleen Saria Espainiako Film Labur Onenari (1.000 €)**
Espainiako film labur hautatuek sari hau eskuratzeko aukera izango dute.
- 🏆 **Zilarrezko Méliès Saria Europako Film Labur Onenari**
Nazioarteko epaimahaiak, halaber, Zilarrezko Méliès Saria Europako Film Labur Onenari emango du, Fantasiako Zinemaren Jaialdien Europako Federazioaren oinarri jarraituz.
- 🏆 **Gazte Epaimahaiaren Saria Film Labur Onenari**
Nazioarteko lehiaketako film labur hautatuek sari hau eskuratzeko aukera izango dute.
- 🏆 **Syfy Saria Espainiako Film Labur Onenari (3.000 €)**
Hautatutako film labur espainiarrek sari paregabe hau eskuratzeko aukera izango dute. NBC Universal Global Networks España, SLUK eta Beldurrezko Asteak hautatutako epaimahai espezializatu batek erabakiko du saria.
Hautagai finalista guztiek euren lana Syfy kanalean eta haren web orrian erakusteko eskubidea (ez eskusiboa) lagako dute hiru hilabetez, kanalean lehen aldiz ematen denetik kontaktzen hasita.
- 🏆 **EITB Saria Euskal Film Labur Onenari (1.000 €)**
EITBk aukeratutako epaimahai batek emango du. Euskal ekoizpenaren %20 gutxienez duten film labur guztiek jaso ahal izango dute saria.

BAIMENAK

JAIALDIAn izena eman ondoren, lehiaketan parte hartzeko onartutako film labur ororen AURKEZPEN-EGILEAK espresuki baimentzen du JAIALDIA honako jarduerak burutzeko:

- 🔊 Film laburra jendaurrean irekitako emanaldietan beharrezkoa den guztietan proiektatzea, JAIALDIAn parte hartzen duen bitartean.
- 🔊 Film laburra beste formatu batzuetara egokitzea JAIALDIAn ikusi eta erakutsi dadin.
- 🔊 Film laburra jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batzuetan azpiztitulatzeko.
- 🔊 Film laburraren irudiak eta/edo zatiak erabiltzea JAIALDIAREN txosten, informazio kartel eta/edo web orri ofizialean argitaratzeko, JAIALDIARI dagokion sustapena burutze aldera.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

Aipatu baimena ematea ezinbesteko baldintza izango da film laburrak JAIALDIAn parte har dezan eta AURKEZPEN-EGILEAK ez du inolako ordain ekonomikorik jasoko.

DATUEN BABESA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesten dituenak (aurrerantzean, **DBLO**), xedatutakoaren arabera, AURKEZPEN-EGILEARI jakinarazten zaio film laburra JAIALDIAn izena ematearekin emandako datuak zein film labur horrek JAIALDIAn parte hartzearen ondorioz aurrerantzean emango dituen datu guztiak DONOSTIA KULTURA Enpresa Erakunde Publikoaren –Datuak Babesteko Euskal Agentzia txit gorenean behar bezala inskribatuta dagoena– fitxategi bati gehituko zaizkiola bertan tratatzeko, betiere film laburraren parte-hartzea JAIALDIAn kudeatu eta filmaren publizitatea egiteko xedearekin.

Datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa nahitaez eman beharko da eta, informazio hori eman ezean edo datu okerrak emanez gero, film laburrak ezingo du JAIALDIAn parte hartu.

Izaera pertsonaleko datu horien gaineko aldaketa oro jakinaraziko dio datuen titularrak fitxategiaren arduradunari, eta uneoro emandako datuak egiazkoak eta zehatzak direla ziurtatuko du. Hirugarren pertsonen datuak emanez gero, AURKEZPEN-EGILEAK datu horien titularren baimena beharko du datuak jakinarazteko.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak baliatzeko, AURKEZPEN-EGILEAK eta/edo beste edozein interesdunek honako helbide honetara idatz dezakete DBLOak aurreikusitako baldintzei jarraituz: DONOSTIA KULTURA, Victoria Eugenia Antzokia, Erregina Erregentea, 4. zk, 20003 – Donostia (Gipuzkoa).

HIZKUNTZA, LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

OINARRI hauek gaztelaniaz idatzi dira eta beste hizkuntza batzuetara itzuli ahal izango dira, kontuan hartuta gaztelania dela kontrolerako hizkuntza, bai eta itzulpenen arteko kontraesanak izatekotan gailenduko den hizkuntza ere.

OINARRI hauek Espainiako Legea beteko dute eta lege horren arabera interpretatuko dira. OINARRI hauei, haien interpretazioari eta aplikazioari lotuta sor daitekeen eztabaida ororen ebazpena Donostiako (Gipuzkoa) Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzio eskusiboaren mende egongo da, eta AURKEZPEN-EGILEAK baldintza hori onartuko du.

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea

+34 943 48 11 57

cinema_cinema@donostia.eus

www.sansebastianhorrorfestival.eus

